


Downen sindromea zuen haur neandertal baten fosila aurkitu dute



Goian: Cova Negrako fosilaren jatorrizko hezur tenporala eta 3D berreraikuntza. Behean: Barne-belarriaren 3D ereduak; ezkerrekoan hodi erdizirkularraren dilatazio patologikoa ikus daiteke eta eskuinean Kebara 1 fosilarena, alegia, patologiarik ez duen neandertal batena. ARG.: Alcalako Unibertsitatea.

Hezur tenporalaren zati bati esker, frogatu dute neandertalek zailtasunik zituzten haurrak zaintzen zituztela. Fosila Cova Negra kobazuloko aztarnategian aurkitu zuten (Xàtiva, Valentzia), eta, hasieran, animalia batena zela uste izan zuten. Gero, ordea, ohartu ziren duela 150.000 urteko haur neandertal batena zela. Tomografia axial konputertzatua erabilita, berriz, belarrian jaiotzatiko malformazioak zituela ikusi dute, hala nola hodi erdizirkularraren displasia eta otitisak eragindako fistula bat, zeinak orekan eta entzumenean eragingo baitzion. Ikertzaileen esanean, gaur egun, patologia horiek denak batera Downen sindromea duten pertsonen bano ez dituzte izaten.


Horrenbestez, ondorioztatu dute [neandertalek, heldu gaixoak edo elbarriak ez ezik](#), gutxiegitasun nabarmenak zituzten haurrak ere zaintzen zituztela. Hain zuzen, Downen sindromea zuen haur hori sei urtez bizi izan zela kalkulatu dute, orain arte aurkitu diren historiaurreko Downen sindromedunak baino askoz ere gehiago, baita sapiensak izanda ere. ●

Krauseren korpuskuluek koitoan funtsezko funtzioa dutela ikusi dute saguetan

Krauseren korpuskuluak egitura sentsorial espezializatuak dira, eta 1850. hamarkadatik ezagutzen badira ere, ez zeuden guztiz garbi haien funtzioak. Orain saguekin egindako ikerketa batean ikusi dute funtzio garrantzitsuak dituztela koitoan, bai emeean, bai arretan.

Jakina zen klitoriak eta zakilak, biak dituztela korpuskuluak; orain, baina, baieztatu dute haien kontzentrazioa 15 aldiz handiagoa dela klitorian zakilean baino. Horrez gain, Krauseren korpuskuluak inerbatzen dituzten neurona somatosentsorialen bi talde bereizi dituzte, eta ikusi dute biak bizkarrezurmuinaren amaiera sentsorial berera doazela.

Bestalde, saguen klitoriak eta zakilak mekanikoki eta elektrikoki estimatuta, frogatu dute korpuskuluek 40-80 Hz-eko maiztasunei erantzuten dietela (tarte hori da, hain zuzen, sexu-jostailuek erabili ohi dutena). Optogenetikaren bidez Krauseren korpuskuluak berariaz estimatuta, berriz, ikusi dute zakila zutitu eta bagina uzkurto egiten dela; eta korpuskuluak genetikoki desaktibatuz gero sarketa zaildu egiten dela, bai arren ezintasun fisikoa-rengatik, bai emeen onarpen-ezarengatik. ●



Krauseren korpuskuluak klitorian (ezkerrean) eta zakilean (eskuinean). ARG.: Lijun Qi, Michael Iskols, eta David Ginty.